

## GAIA

Zaborraren bilketa

### AZALPENA

Bilduk Udal hauteskundearen aurkeztutako egitasmoan, hauxe esaten da hitzez hitz: "Bilduk Usurbilgo Itunarekin bat egiten du erraustegirik behar ez duen hiri hondakinen kudeaketaren alde eta 'Zero Zabor' politikak ezartzeko bidean. Begi onez ikusten ditugu Usurbil, Oiartzun, Hernani eta Antzuolak zabalduko aukerak hondakinak atez ate jasoz. Esperientzia horiek Atez Ateko Bilketa sistemarik eraginkorra dela erakutsi digute, bilketa selektiboa %85era heltzen baita".

Duela egun batzuk herriko hedabide batek egindako elkarrizketa batean, eta atez-ateko bilketa ezarriko ote duen galdetuta, Juan Luis Illarramendi alkateak ez zuen aukera hori baztertu. Bertako egunkari batek elkarrizketatuta, berriz, Alizia Osa zinegotziak hauxe zioen: "Ildo horretatik, bilketa egiteko moduari eta birziklatzeari heldu behar zaio lehenik. Geu lehen urratsak ematen ari gara, baina ez gara lehen urrats hauetan geratuko".

EAJ-PNVren irudiko, atez-ateko bilketa ez da sistema egokia Zarautzentzat, hainbat arrazoiengatik:

- 1.- Denak egongo gara ados prebentzioa, birziklapena eta konpostajea bultzatzerakoan, baina ez inposaketaren bidetik. Atez-ateko sistema inposizioan oinarritzen da eta herritarrek derrigortzen ditu. Aitzitik, prebentzioa eta birziklatzearen sustapena heziketaren, kontzientziazioaren eta sentsibilizazioaren bitartez egin behar da. XXI. mendean, inposaketa iragana da, eta heziketa eta kontzientziazioa, berriz, etorkizuna.
- 2.- Atez-ateko bilketa sistemak kalte egingo dio Zarautzen bizi-kalitateari. Osasunagatik, usainengatik eta garbitasunagatik, ez ditugu nahi zabor boltsak gure etxe-atarietan, esekitokietan zintzilik, eta ezta gure etxe-aurrealdeetan eta kaleetan ere.
- 3.- Atez-ateko bilketa sistemak zeharo baldintzatuko du eguneroko bizimodua gure etxeetan, sukaldeetan, elkarte gastronomikoetan, etabar... Gainera, herritarren intimitatea eta pribatutasuna arriskuan jartzen dituen sistema da Prebentzioa, birziklatzea eta konpostajea bultzatu behar dugu, baina

horretarako ezin dugu jarri zaborra gure bizitzen erdigunean, horiek erabat baldintzatuz.

Hori da gure ikuspegia, hauteskundeetan aurkeztu genuen programan eta idatziz aurkeztu ditugun ekimenetan jasota dagoena. Esan bezala, uste dugu alderdi bakoitzak, Bildutik hasita, argi eta garbi eta itzulingururik gabe azaldu behar duela bere eredia zein den premiazkoa den eztabaida honen aurrean. Herritarrek jakin egin behar dute zeintzuk diren Udal Gobernuaren asmoak, zaborraren bilketari dagokionez, besteak beste, nahasmena saihesteko.

Orain arte azaldutako guztia dela-eta, ondokoa aurkezten dugu:

## MOZIOA

1. EAJ-PNVren Udal taldeak Udal Gobernuari eskatzen dio publikoki ziurtatzeko atez-ateko sistema Zarautzen ezarriko ez duela.
2. EAJ-PNVren Udal taldeak bosgarren edukiontzia aldeko apustua berresten du, eta bere programan adierazi bezala, babestu egiten ditu aipatu edukiontzia erabilera orokortzeko neurriak, sentsibilizazio zein zerga arloan. Aldiz, ez dugu begi onez ikusten atez-ateko bilketa, sistema zaharkitua, garestia eta inposaketan oinarritatukoa dela, eta herritarren babesik ez duela baiteritzogu.
3. EAJ-PNVren Udal taldeak bere prestutasuna azaltzen dio Udal Gobernuari, besteak beste, Urola Kosta Udal elkartetik bilketa selektiboaren esparruan abian jarri diren ekimenak elkarlanean bultzatu, berraztertu edo berriak proposatzeko.

  
**Imanol Lasa Zeberio**  
*Zarauzko EAJ-PNVren udal taldeko bozeramalea*